5459

EBAZPENA, 2008ko irailaren 11koa, Garapen Lankidetzarako zuzendariarena, NBE-2008BA/0028 proiektuan aritu behar zuen María Angélica Páez Sánchez bekadunak diru-laguntzari guztiz uko egiteko aurkeztutako eskabidea onartzeko dena. Fundación UNICEF-Comité Español erakundeak aurkeztu zuen proiektua, Garapena eta Lankidetza Sustatzeko Fondoaren kargura, Nazio Batuen nazioarteko erakundeei eta erakundeokin elkartutako pertsona juridikoei zuzendutako 2008ko diru-laguntzetarako deialdiaren barruan. Diru-laguntzok Euskal Autonomia Erkidegoko lankide boluntarioei bekak emateko dira.

Etxebizitza eta Gizarte Gaietako sailburuak agindua eman zuen 2008ko martxoaren 12an, zeinaren bitartez, Nazio Batuen Erakundearen sistemako nazioarteko erakundeentzat eta erakunde horiei elkarturiko pertsona juridikoentzat laguntzak deitzen diren. Laguntza horiek lankide boluntarioei bekak emateko dira 2008ko ekitaldian, erakunde horiek herrialde pobretuetan egiten dituzten garapen-programatan parte har dezaten. Garapen Lankidetzako zuzendariaren 2008ko abuztuaren 8ko Ebazpenaren bidez, 15.355,80 euroko diru-laguntza esleitu zitzaion Fundación Unicef-Comité Español erakundeari, María Angélica Páez Sánchez bekadunaren gastuak ordaintzeko, zeinak El Salvador herrialdean bete behar baitzuen bere zeregina.

Bekadunak, hala ere, 2008ko irailaren 11n, bekari uko egiteko eskabidea igorri zion Garapen Lankidetzarako Zuzendaritzari.

Azaldutako guztiagatik, Garapen Lankidetzarako Zuzendaritzak entitate onuradunak eskatutako aldaketak onartzearen aldeko txostena egin du. Beraz, hau

EBATZI DUT:

Lehenengoa.– Fundación Unicef-Comité Español erakundeak Unicef-El Salvadorreko haurrentzako politika publikoen eremurako NBE-2008BA/0028 proiektuari dagokionez aurkeztutako ukoa onartzea eta, ondorioz, bekadunak 15.355,80 euroko diru-zenbatekoari uko egingo dio. Garapena eta Lankidetza Sustatzeko Fondoaren 2008ko deialdiaren barruan aurkeztu zen proiektu hori.

Bigarrena.– Ebazpen honen aurka gora jotzeko errekurtsoa aurkeztu ahal izango da, Gizarte Gaietako sailburuordeari zuzenduta. Ebazpena jakinarazten den egunaren biharamunean hasi eta hilabetekoa izango da horretarako epea.

Vitoria-Gasteiz, 2008ko irailaren 11.

Garapen Lankidetzarako zuzendaria,
IGOR IRIGOYEN FUENTES.

5459

RESOLUCIÓN de 11 de septiembre de 2008, del Director de Cooperación al Desarrollo, por la que se aprueba la solicitud de renuncia total a la becaria María Angélica Páez Sánchez que debía desarrollar su actividad en el proyecto con referencia NBE-2008BA/0028 presentado por la entidad Fundación Unicef-Comité Español dentro de la convocatoria de ayudas a Organismos Internacionales de Naciones Unidas y a personas jurídicas vinculadas a los mismos, para becar a las personas cooperantes voluntarias de la Comunidad Autónoma Vasca con cargo al Focad 2008.

De conformidad con lo establecido en la Orden de 12 de marzo de 2008, del Consejero de Vivienda y Asuntos Sociales, por la que se convocan ayudas a Organismos Internacional del sistema de Naciones Unidas y a personas jurídicas vinculadas a ellos, para becar a las personas cooperantes voluntarias que participen en proyectos de desarrollo de dichos Organismos Internacionales en países empobrecidos en el ejercicio 2008 y de conformidad con la Resolución de 8 de agosto de 2008, del Director de Cooperación al Desarrollo, se concedió a Fundación Unicef-Comité Español una ayuda de 15.355,80 euros para sufragar los gastos de la becaria María Angélica Páez Sánchez que debía desarrollar su actividad en El Salvador.

Con fecha 11 de septiembre de 2008, fue remitida a esta Dirección de Cooperación al Desarrollo la solicitud de renuncia a la beca.

Por todo lo expuesto, la Dirección de Cooperación al Desarrollo informa favorablemente a los cambios solicitados por la entidad beneficiaria de la subvención, en vista de lo cual,

RESUELVO:

Primero.– Aceptar la renuncia solicitada por la entidad Fundación Unicef-Comité Español en proyecto Área de políticas públicas para la infancia de Unicef-El Salvador (NBE-2008BA/0028) presentado dentro de la convocatoria de ayudas a proyectos con cargo al Focad 2008, lo cual supone la renuncia de 15.355,80 euros.

Segundo.– Contra la presente Resolución, se podrá interponer recurso de alzada ante el Viceconsejero de Asuntos Sociales en el plazo de un mes a partir del día siguiente a su notificación.

En Vitoria-Gasteiz, a 11 de septiembre de 2008.

El Director de Cooperación al Desarrollo,
IGOR IRIGOYEN FUENTES.